

## UDALBATZA OSOA

### Bilkura-akta

2018ko martxoaren 14an akta onesteko bilkuran egindako oharrak biltzen ditu.

#### Ohiko bilkura

#### Eguna: 2018ko otsailaren 21a, asteazkena

Oyón-Oiongo udaletxeko bilkuren aretoan, adierazitako egunaren hogeiak direnean, Eduardo Terroba Cabezón (EAJ-PNV) alkate-udalburu jauna buru dutela, honako zinegotzi jaun-andre hauek bildu dira Udaltzaren osoko bilkura egiteko: Conchi Villanueva Gutiérrez (EAJ-PNV), Idoia Eslava Guillerna (EAJ-PNV), José Antonio Tarragona Elejalde (EAJ-PNV), José Manuel Villanueva Gutiérrez (EH Bildu Oion), Elizmendi Martínez de San Vicente Apiñániz (EH Bildu Oion) eta Manuel Gamarra López- Brea (PSE-EE-PSOE).

Osaeran ez zeudenak: Agustín Hervías Salinas (PP), Diana Rubio Lafuente (PP) eta Luis Felipe Campos Latre (PP); lan-arrazoia direla-eta ezin duela etorri adierazi du.

Legeak udalerrri honi ematen dizkion hamabi aukietatik, zinegotzien auki bat hutsik dago, betetzen zuenak uko egin zionetik; 2016ko abenduaren 21ean gertatu zen hori. Nahiz eta ordutik denbora asko pasatu den, ez da ordezkatu. Legez hamaika zinegotzi egon behar dira, baina, orain, hamar kide daude.

Alfredo S. Sastre de A. idazkari titularra da bilkurako idazkaria.

Alkate-udalburu jaunak deitu du bilkura, alde zuzenetik eta arazko publikitatearekin. Honako hau da

#### Aztergaien zerrenda

1. Onestea 2018ko urtarrilaren 17an eginiko ohiko bilkuraren akta.
  2. Alkatetza-dekretu eta -ebazpenak.
  3. **Kultura, Turismoa, Festak, Obrak eta Zerbitzuak, eta Nekazaritza Batzordea.**
    - 3.1. Ur Partzuergoari lursailak eskatzea Oiongo edateko uraren depositua berritzeko.
  4. **Gazteria, Hezkuntza eta Kirolak Batzordea.**
  5. **Gizarte Ongizatea, Euskara eta Osasuna Batzordea.**
    - 5.1. Berdinsarea berdintasunaren aldeko eta emakumeen kontrako indarkeriaren aurkako euskal udalerrien sarearekin bat egitea.
    - 5.2. Urtarrilaren 10eko 1/2018 mozioa, indarkeria matxisten aurkako aplikazio telematiko bat sortzeari eta ezartzeari buruzkoa, esku-hartze denbora txikitzeko.
    - 5.3. Martxoaren 8ko adierazpena.
  6. **Ekonomia, Ogasuna eta Enplegua, eta Hirigintza Batzordea.**
    - 6.1. Kontratazio-mahaia osatzea.
    - 6.2. Euskadiko KEA Oregin solaskidea izendatzea.
    - 6.3. Hasieran onartzea 2018 ekitaldirako ohiko aurrekontu orokorra.
- Premiazko izapidez sartutako kontuak
7. Adierazpen instituzionala, etorkizuneko AHTren Miranda de Ebro – Logroño trazaduraren aukerak, Arabako lurraldea zeharkatzen dutenak, arbuizatzeko

Azken puntua) Galderak eta eskeak

Bilkuraren izaerarekin eta eguneko aztergaien zerrendarekin bat etorritik, eta gaiak jorratu eta bozkatu ostean, honako erabaki hauek hartu dira:

## **1. Onestea 2018ko urtarrilaren 17an eginiko ohiko bilkuraren akta.**

Alkate-udalburu jaunak aktari oharrrik egin nahi dioten galdetu die zinegotzi jaun-andreei.

Ez da oharrrik egin.

Hau erabaki da:

1) 2018ko urtarrilaren 17ko ohiko bilkuraren akta onestea, bidalitako zirriborroa aintzat hartuta.

Aldeko botoak: 6 (sei): Eduardo Terroba Cabezón (EAJ-PNV), Conchi Villanueva Gutiérrez (EAJ-PNV), Idoia Eslava Guillerna (EAJ-PNV), José Antonio Tarragona Elejalde (EAJ-PNV), José Manuel Villanueva Gutiérrez (EH Bildu Oion) eta Manuel Gamarra López- Brea (PSE-EE-PSOE).  
Abstentzioak 1 (bat): Elizmendi Martínez de San Vicente Apiñániz (EH Bildu Oion).

Urtarrileko ohikoaren abstentzioa Martínez de San Vicente Apiñániz ez egotearen ondorio da.

## **2. Alkatetza-dekretu eta -ebazpenak.**

Idazkari jaunak, alkate-udalburu jaunak hala eskatuta, alkatetza-dekretu eta-ebazpenen berri eman du, zehazki aurreko ohiko bilkuratik aurrera emandakoena: 2018ko 8/18tik 35/18ra bitartekoak.

Bertaratuak jakinaren gainean gelditu dira.

## **3. Kultura, Turismoa, Festak, Obrak eta Zerbitzuak, eta Nekazaritza Batzordea.**

### **3.1. Ur Partzuergoari lursailak eskatzea Oiongo edateko uraren depositua berritzeko.**

Alkate jn.: Depositua eskualdeko zaharrenetakoa da, eta eraikitze moduak (hormigoizko eraztunak) arazo batzuk eragin ditu, eta horregatik planteatzen da ordezkatzeta.

Villanueva jauna: Ados, eta batez ere finka dadila beste isurialdean; gogorarazi behar da milioi erdi litroko depositua dela.

Aurrekariak:

- 1) Arabako Errioxako Ur Partzuergoaren eskaria, 3. Poligonoko 933. lursaileko lurak eskura jartzekoa, edateko uraren depositu berria jartzeko.
- 2) 2018ko otsaileko Obra eta Zerbitzuen Informazio Batzordean egindako proposamena.

Hau erabaki da

- 1) Arabako Errioxako Ur Partzuergoari 3. Poligonoko 933. lursaileko lurak doan lagatzea eta eskura jartzea, edateko uraren depositu berria jartzeko. Egun, deposituan dagoen Preلود eraikuntza-sistemak egiturazko hutsuneak dituelako berrituko da.
- 2) Alkate-udalburu Eduardo Terroba Cabezóni ahalmena ematea behar beste agiri sinatzeko, bereziki zuinketa-akta.

Aldeko botoak: 7 (zazpi); Eduardo Terroba Cabezón (EAJ-PNV), Conchi Villanueva Gutiérrez (EAJ-PNV), Idoia Eslava Guillerna (EAJ-PNV), José Antonio Tarragona Elejalde (EAJ-PNV), José Manuel Villanueva Gutiérrez (EH Bildu Oion), Elizmendi Martínez de San Vicente Apiñániz (EH Bildu Oion) eta Manuel Gamarra López- Brea (PSE-EE-PSOE).

4. **Gazteria, Hezkuntza eta Kirolak Batzordea.**
5. **Gizarte Ongizatea, Euskara eta Osasuna Batzordea.**

### **5.1. Berdinsarea berdintasunaren aldeko eta emakumeen kontrako indarkeriaren aurkako euskal udalerrien sarearekin bat egitea.**

Gamarra jauna: Positiboa iruditzen zaigu, eta bat egitea babestuko dugu.

Villanueva jauna: Positiboa da, eta emandako dokumentuarekin batera, beharrezkoa ikusten dugu Oionek bere beharrei egokitutako protokolo bat edukitzea. Berriz ere neure burua eskaintzen dut Oionentzako protokolo bat idazten laguntzeko.

Alkate jn.: Gogorarazten dut Kuadrillan lanean ari garela eskualdeko protokolo bat egiteko, udal guztientzat. Ez dauka zentzurik Oionentzako protokolo bat egiteak Udalak ez badu osasun- eta segurtasun-bitartekorik, Osakidetzari eta Ertzaintzari dagozkionak.

#### Aurrekariak:

Berdintasunaren aldeko eta emakumeen kontrako indarkeriaren aurkako euskal udalerrien sareak helburu du berdintasunaren alde eta emakumeen kontrako indarkeriaren aurka tokiko gobernuek kudeatzen dituzten programak eta zerbitzuak bultzatzea, indartzea, koordinatzea eta ebaluatzea. Asmoa da sarean egindako lanak arlo honetako tokiko erantzunaren eraginkortasuna hobetzea, eta balio izatea haien eta beste udalaz gaindiko erakunde batzuen loturatzat.

Emakumeen kontrako indarkeria gizonen eta emakumeen desberdintasunaren muturreko adierazpenetako bat da, eta indarkeriazko ekintza guztiak biltzen ditu, sexua dela medio egindakoak, ondoriotzat, emakumeenganako kalte fisikoak ez ezik, kalte sexualak edo psikologikoak dakartzanak. Horregatik, hura deuseztatzeko modurik hobereana emakumeen eta gizonen berdintasunean aurrera egitea da.

Dena dela, tokiko gobernuek kontziente gara beharrezkoa dela emakumeen kontrako indarkeriaren prebentzioa eta arreta instituzionala hobetzea uztartzea, eta, horretarako, ez da posible oraindik kontu honen arretarekin lotutako erakundeek modu independente eta partzialean jarduten jarraitzea. Beharrezkoa da jarrera irmo bat hartzea eta agerian jartzea arazo honen larritasunak erakundeen erantzun oso eta koordinatu bat eskatzen duela; eta, bertan, udal-jarduketak funtsezko rola du, herritarrengandik gertuen dagoen administrazioa baita.

Esparru honen barruan, 2001eko urriaren 18an erakundeen arteko akordioa sinatu zen, gai honetan inplikaturako euskal erakunde guztiek etxeko tratatu txarren eta eraso sexualen biktimen arreta hobetzeko. Bestalde, akordio horren jarraipen-batzordeak adierazi zuen beharrezkoa dela udalen esparrutik lankidetzak-akordioak eta jarduketak-protokoloak egitea, akordio orokorra garatu, zehaztu eta beren errealitatera egokitzeko, eta aurreikuspen hori, ondoren, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 62. artikuluan jaso zen.

Era berean, jarraipen-batzordeak (besteak beste, EUDEL-Euskadiko Udalen Elkarteak parte hartzen du) 2002ko azaroaren 22an etxeko indarkeriaren biktima diren emakumeentzako Segurtasun Plana (2002-2004) onetsi zuen, eta bere neurrien artean zegoen Emakumeen kontrako Indarkeriaren aurkako Euskadiko Udalerrien Sarea osatzea, tokiko esparruan, bai indarkeria mota horri aurre egiteko eta biktimak babesteko programak eta jarduketak ezartzeko, bai esperientziak trukatzeko, koordinatzeko eta jarduketa bateratuak egiteko.

Kontuan harturik EUDEL, Euskadiko Udalerrien Elkartearen den heinean, dela erakunderik egokiena sarearen osaera gidatzeko eta kudeatzeko, 2005eko otsailean, EUDEL-Euskadiko Udalerrien Elkarteak eta EMAKUNDE-Emakumearen Euskal Institutuak lankidetzak-hitzarmen bat sinatu zuten Berdintasunaren Aldeko eta Emakumeen kontrako Indarkeriaren Aurkako Euskadiko Udalerrien sarea martxan jartzeko, eta Oyón-Oiongo Udala han sartu zen.

Sare horretan sartzean hartzen diren konpromisoak hauek dira:

1. Konpromiso politiko irmoa
2. Ikuspegi osoa berdintasunaren alde eta emakumeen kontrako indarkeriaren aurka
3. Emakumeen autonomia eta ahalduntzea bultzatzera begirako ikuspegi bat
4. Prebentzioari lehentasuna ematen dion ikuspuntu bat
5. Emakumeen dibertsitatea errespetatzea eta baloratzea
6. Berdintasuna bultzatzeko eta emakumeen kontrako indarkeriaren biktimak artatzeko baliabideak elkarrekin erabiltzeko borondatea
7. Udalentzat eta emakumeentzat beraientzat erreferente izateko asmoa
8. Jarduketak etengabe hobetzeko beharra

Berdintasunaren Aldeko eta Emakumeen kontrako Indarkeriaren Aurkako Euskadiko Udalerrien Sarean aktiboki parte hartzeko konpromisoa; hauek dira helburuak:

1. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legea bete dadin laguntzea
2. Tokiko esparruan emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko eta desberdintasunak eta emakumeen kontrako indarkeria deuseztatzeko programak eta jarduerak bultzatzea, 4/2005 Legeak ezartzen duen esparruarekin eta funtzioekin.
3. Gai horretan esperientzien trukea, koordinazioa eta jarduketa-irizpideen bateratzea erraztea, tokiko esparruan ekintzak egiterako orduan
4. Lankidetzak-akordioak eta jarduketa-protokoloak onartzea sustatzea, berdintasunarekin eta emakumeen kontrako indarkeriaren aurkako borrokarekin lotuta udalaz gaindi egindako akordioak garatzen, zehazten eta udalerriko egoerara egokitzen dituztenak
5. Bultzatzen ari diren politikak aztertzea, eta berdintasunaren eta indarkeriaren kontrako borrokaren inguruan hartzen diren legegintzako neurrien inguruan hausnartzea
6. Udalen jardunbide onak identifikatzea eta zabaltzea, berdintasunaren eta emakumeen kontrako indarkeriaren aurkako borrokaren esparruan
7. Honen inguruko egiturarik eta baliabiderik ez duten udalerrien lana babestea eta dinamizatzea

Hau erabaki da

- 1) Oyón-Oiongo udalerriak Berdintasunaren Aldeko eta Emakumeen kontrako Indarkeriaren Aurkako Euskadiko Udalerrien Sarearekin (Berdinsarea) bat egitea, eta bat egiteak dakartzan konpromisoak bere egitea.

Aldeko botoak: 7 (zazpi); Eduardo Terroba Cabezón (EAJ-PNV), Conchi Villanueva Gutiérrez (EAJ-PNV), Idoia Eslava Guillerna (EAJ-PNV), José Antonio Tarragona Elejalde (EAJ-PNV), José Manuel Villanueva Gutiérrez (EH Bildu Oion), Elizmendi Martínez de San Vicente Apiñániz (EH Bildu Oion) eta Manuel Gamarra López- Brea (PSE-EE-PSOE).

## **5.2. Urtarrilaren 10eko 1/2018 mozioa, indarkeria matxisten aurkako aplikazio telematiko bat sortzeari eta ezartzeari buruzkoa, esku-hartze denbora txikitzeko.**

Villanueva Gutiérrez jauna: Ez da testurik bidali. Batzar Nagusietan onetsitako mozio bat besterik ez dago.

Alkate jn.: Proposamena da Batzar Nagusietan onetsitako mozioa babestea, eta horrek antzeko erabaki bat hartzea dakar.

Aurrekariak:

*Udalbatza Osoa; 2018-II-21eko bilkura-akta;*

- 1) Urtarrilaren 10eko 1/2018 mozioa, indarkeria matxisten aurkako aplikazio telematiko bat sortzeari eta ezartzeari buruzkoa, esku-hartze denbora txikitzeko.
- 2) 2018ko otsaileko Obra eta Zerbitzuen Informazio Batzordean egindako proposamena.

Hau erabaki da:

- 1) Babestea urtarrilaren 10eko 1/2018 mozioa, indarkeria matxisten aurkako aplikazio telematiko bat sortzeari eta ezartzeari buruzkoa, esku-hartze denbora txikitzeko.
  - I. Oyón-Oiongo Udalak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio diseinatzeko eta garatzeko aplikazio telematiko bat indarkeria matxistaren egoeretan esku-hartze denbora txikitzeko. Tresna hori diseinatzeko ikuspegi feminista bat erabili beharko da, eta EMAKUNDEren eta mugimendu feministaren babesa eduki beharko du.
  - II. Oyón-Oiongo Udalak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio tresna horrek arreta berezia ematea mezuei eta alertei, eta zerbitzu horretako langileek prestakuntza berezia edukitzea.
  - III. Oyón-Oiongo Udalak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio informazio-kanpaina bat egiteko euskal gizarteari aipatutako aplikazioaren zerbitzuen berri emateko.
  - IV. Oyón-Oiongo Udalak Arabako Foru Aldundiari eta Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio, bere eskumenen esparruan eta estatu eta nazioarteko mailako politiken eta itunekin koordinatuta, martxan jartzeko indarkeria matxistaren aurkako beharrezko neurri guztiak, bere memoria ekonomikoa barne.
  - V. Oyón-Oiongo Udalak Diputatuen Kongresuari eskatzen dio abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoa (Genero-indarkeriaren aurka oso-osoko babesa emateko neurriei buruzkoa) presaz aldatzeko, **jarraipen-jarduketan arabera.**

Aldeko botoak: 7 (zazpi); Eduardo Terroba Cabezón (EAJ-PNV), Conchi Villanueva Gutiérrez (EAJ-PNV), Idoia Eslava Guillerna (EAJ-PNV), José Antonio Tarragona Elejalde (EAJ-PNV), José Manuel Villanueva Gutiérrez (EH Bildu Oion), Elizmendi Martínez de San Vicente Apiñániz (EH Bildu Oion) eta Manuel Gamarra López- Brea (PSE-EE-PSOE).

### **5.3. Martxoaren 8ko adierazpena.**

Eslava Galán andreak EUDELen adostutako martxoaren 8aren kariaz idatzitako adierazpena irakurri du. Lehen zatia gazteleraz irakurri du, eta bigarrena euskaraz. Testu osoa jaso da hitzez hitz, bi hizkuntzetan.

Declaración para el 8 de marzo de 2018

¿Qué pasa si las mujeres no cuidan, no consumen, no trabajan y no participan?

Esta reflexión llevó el año pasado al movimiento feminista a lanzar una convocatoria de huelga internacional de mujeres en más de 70 países y este año 2018 se repite bajo el lema de “Emakumeok Planto. Nosotras paramos”. La huelga tiene por objeto visibilizar el impacto que tiene en nuestra sociedad el trabajo de las mujeres y exigir que este sea reconocido.

El bienestar de nuestra sociedad no sería posible sin la realización de actividades imprescindibles para la sostenibilidad de la vida como el cuidado de las personas (niñas y niños, mayores y personas dependientes...) o el mantenimiento de las tareas del hogar. Estas labores, mayoritariamente no remuneradas, recaen principalmente en las mujeres. Sin su contribución la sociedad se pararía.

Gran parte del trabajo de las mujeres está invisibilizado y no se contabiliza. Esto implica no solo que se subestime el valor de los bienes y la riqueza producidas en los hogares; además, niega e invisibiliza la horas y la contribución económica que suponen estas labores realizadas

mayoritariamente por mujeres, e invisibiliza asimismo el enorme ahorro social que suponen en servicios de cuidado, sanitarios, sociales y de protección.

Si tenemos en cuenta las horas dedicadas dentro y fuera del mercado de trabajo, las mujeres asumen en nuestra sociedad el 56 % del mismo, pero realizan el 74% del trabajo no remunerado. Además, muchos de los trabajos feminizados, ocupados principalmente por mujeres, forman parte del empleo precarizado o incluso de la economía sumergida en el mercado laboral. Además, en este sector se emplean muchas mujeres migradas, que han tenido que delegar el cuidado de su familia en otras mujeres de sus entornos de origen, construyendo así las cadenas globales de cuidado.

Y es que no se trata únicamente de las tareas que realizan, sino que como consecuencia del tiempo que las mujeres dedican al cuidado y a las tareas del hogar, los hombres disponen de más tiempo que emplean en el desarrollo de su carrera profesional y laboral, o de cualquier actividad social o de ocio a la que las mujeres tienen grandes dificultades de acceso.

Este uso diferencial del tiempo constituye un importante freno para el avance en el objetivo de la igualdad traduciéndose en la perpetuación de los estereotipos sobre hombres y mujeres y en un obstáculo estructural para conciliar las diferentes responsabilidades atribuidas por género, entre otras consecuencias.

Por todo ello, resulta imprescindible reconocer socialmente los cuidados como condición indispensable para la sostenibilidad de la vida, apoyar una nueva organización social de los cuidados que redistribuya su provisión, impulsar la corresponsabilidad de los hombres, hacer visible la pérdida de talento de las mujeres en espacios de decisión y poder que provoca este modelo de organización social, alinear la cultura organizativa y empresarial con la igualdad y fortalecer los servicios públicos que favorezcan la conciliación entre vida laboral y personal.

Consciente de esta situación, el Ayuntamiento de Oyón-Oion se compromete a

- Desarrollar programas de sensibilización y formación dirigidos a fomentar la corresponsabilidad de los hombres en las tareas de cuidado y mantenimiento del hogar, así como a compartir los espacios de decisión con las mujeres.
- Contribuir en el ámbito de su competencia al desarrollo y consolidación de recursos y servicios públicos para apoyar el cuidado y promover la articulación de estrategias comunitarias para la corresponsabilidad social en los cuidados.
- Desarrollar las políticas municipales con perspectiva de género.
- Incidir en la trasmisión de valores para promover cambios culturales hacia una sociedad igualitaria.

Finalmente, llama a la ciudadanía a participar de manera activa en los diferentes actos y acciones que se organicen y convoquen con motivo del 8 de marzo, Día Internacional de las Mujeres.

2018ko Martxoaren 8rako adierazpena

Zer gertatzen da emakumeek ez badute zaintzen, ez kontsumitzen, ez lan egiten, ezta parte hartzen ere?

Hausnarketa horrexek eraginda, iaz mugimendu feministak emakumeen nazioarteko greba-deialdi bat egitea erabaki zuen, non eta 70 herrialdetan baino gehiagotan; aurtan, 2018an, “Emakumeok planto. Nosotras paramos” leloaren pean errepikatuko da. Grebaren xedea da emakumeen lanak gure gizartean duen inpaktua ikusaraztea eta lan hori aintzat har dadila eskatzea.

Gure gizartearen ongizatea ezinezkoa litzateke bizitzari eusteko ezinbesteko jarduerak egingo ez balira, hala nola, pertsonak zaindu (haurrak, adinekoak, mendekoak...) edo etxeko lanak egin. Lan horietako gehienek ez dute ordainsaririk, eta batez ere emakumeek egiten dituzte. Emakumeen ekarpenik gabe, gizartea geratu egingo litzateke.

Emakumeen lanaren zatirik handiena ez da ikusten eta ez da kontabilizatzen. Horrek esan nahi du etxeetan ekoiztako ondasunen eta aberastasunaren balioa gutxietsi egiten dela, nagusiki emakumeek egiten dituzten zeregin hauen orduak eta ekarpen ekonomikoa ukatu eta ikusezin bihurtzen direla, eta zeregin horiek zaintza, osasun, giza eta babes arloari egiten dioten aurrezpen sozial handia ere ikusezin bihurtzen dela.

Lan-merkatuaren barruan eta kanpoan eskainitako orduak kontuan izanez gero, emakumeek gure gizarteko lanaren % 56 egiten dute, baina baita ordainsaririk gabeko lanaren % 74 ere. Gainera, feminizatutako lan asko, batez ere emakumeek egiten dituzten lan asko, enplegu prekarizatukoak dira edo lan-merkatuko ezkutuko ekonomiakoak. Sektore horretan, gainera, migratutako emakume ugari enplegatzen dira, eta beroriek jatorrizko inguruneetan beren haurrak beste emakume batzuen zaintzapean utzi behar izan dituzte; hala, zaintza-kate globalak sortzen dira.

Eta egiten dituzten zereginenez harantzagoko kontua da; izan ere, emakumeek zaintzan eta etxeko lanetan igarotzen duten denboraren ondorioz, gizonen denbora gehiago dute beren karrera profesionala eta lan-munduko karrera garatzeko, edo aisiako edozein jarduera sozial egiteko, emakumeek jarduera horietan sartzeko zailtasunak izan arren.

Denboraren erabilera desberdin hau traba handia da berdintasuna lortzeko, eta gizon eta emakumeei buruzko estereotipoak betiketaz gain, generoaren ondoriozko erantzukizunak uztartzeko egiturazko oztopo ere bada, besteak beste.

Horregatik guztiagatik, ezinbestekoa da gizarteak aitortzea zaintza-lana ezinbestekoa dela bizitzaren iraunkortasunerako; zaintzen inguruko jendarte mailako antolakuntza berri bat babestu beharra dago zeregin hori beste modu batera hornitzeko, gizonen erantzunkidetasuna sustatu beharra dago, gizartea antolatzeko modu honen ondorioz erabakimen- eta botere-guneetan emakumeen talentuaren galera dagoela ikusarazi behar da, antolakuntza- eta enpresa-kultura berdintasunarekin lerrokatu behar dira, eta bizitza pertsonalaren eta laneko bizitzaren kontziliazioa sustatuko duten zerbitzu publikoak indartu behar dira.

Egoera honetaz ohartzen denez, Oiongo Udalak hitza ematen du

- Sentsibilizazio- eta trebakuntza-programak garatuko dituela, zaintzan eta etxeko lanetan gizonen erantzunkidetasuna sustatzeko eta erabakitzeko guneak emakumeekin partekatuzko.
- Bere eskumenen alorrean lagunduko duela zaintza babesteko baliabideak eta zerbitzu publikoak garatu eta finkatu daitezen, eta zaintzen arloan erantzunkidetasun sozialerako komunitateko estrategien artikulazioa sustatu dadin.
- Udaleko politikak genero-ikuspegiarekin garatuko dituela.
- Balioen transmisioa azpimarratuko duela, berdintasunezko gizartea lortzeko kultura-aldaketak susta daitezen.

Azkenik, herritarrei dei egiten die martxoaren 8a Emakumeen Nazioarteko Eguna dela-eta antolatu eta deituko diren ekitaldi eta ekintzetan modu aktiboan parte har dezaten.

Gamarra jauna: Ados gaude adierazpenarekin, eta babestu egingo dugu. Gogorarazten dut 2018an gaudela, eta borrokan jarraitu behar dugula gizonak eta emakumeak berdinak izan gaitezen eskubideetan eta betebeharretan. Ezin dugu alferrik galdu herritarren erdiak duen giza ahala. Tristeia da, baina borrokan jarraitu behar dugu emakumeak ez daitezen diskrimina enplegua lortzean, lan-sustapenean, soldata-arrakalaren kontra...

Neurri eraginkorrak behar dira desberdinkeria bukatzeko eta genero-indarkeria eta halako gaitzak deuseztatzeko.

Villanueva jauna: Ados gaude testuarekin, nahiz eta, EUDELen testu guztiak bezala, anbiguo samarra izan. Babestuko dugu baldin eta erabaki argi eta berariazkoa baldin badago martxoaren 8ko grebaren alde.

Alkate jn.: Ez dakit zergatik eman behar zaion berariazko babes grebari. Adierazpenak ez du grebaz hitz egiten, eta pentsatzen dut ez digula greba babesteko eskatzen.

Villanueva jauna: Orduan ez dugu EUDELen adierazpena babestuko.

Adierazpena EAJ-PNV eta PSE-EE taldeetako eledunek sinatu dute.

## 6.1. Kontratazio-mahaia osatzea.

Aurrekariak:

- 1) Aplikagarri dira azaroaren 8ko Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legearen 326. artikulua, 2. Xedapen Gehigarria, 7. atala eta 16. Azken Xedapena.
- 2) Kontratazio-mahaia, laguntza tekniko espezializatuko organo bat denez gero, 326. artikuluko 2. atalean azaldutako eginkizuna; hauek dira funtsean:
  - a. Baldintzak betetzen direlako ziurtagiriak kalifikatzea, eta, hala badagokio, betetzen dutela egiaztatzen ez dutenak baztertzea erabakitzea, aldez aurretik zuzentzeko izapidea eginda.
  - b. Lizitatzailen proposamenak baloratzea.
  - c. Beharrezkoa bada, eskaintza bat anormalki baxutzat jotzea.
  - d. Kontratazio-organuari proposatzea eskaintza hoberena egin duen lizitatzaileri kontratua esleitzea.
  - e. Prozedura mugatuan, lehia-elkarrizketan, negoziatutako lizitazioan eta berrikuntzarako elkartzean, hautagaiak hautatzea, kontratazio-organok haien esku utzi badu.
- 3) Kontratazio-araudiak honako irizpide hauek ezartzen ditu tokiko erakundeetan kontratazio-mahaia osatzeko.
  - a. Kontratazio-mahaian hautetsiak baldin badaude, ezingo dute kideen herena baino gehiago izan.
  - b. Idazkaria Udaltzako funtzionario bat izango da.
  - c. Behin-behineko langileek ezingo dute, inola ere, kontratazio-mahaiko kide izan edo eskaintzen balorazioaren txostenik igorri.
  - d. Mahaiko kide izan daitezke bitarteko funtzionarioak, ez badago behar bezala prestatutako karrerako funtzionariorik, eta hala egiaztatzen bada espedientean.
  - e. Mahaiaren osaera dagokion kontratazio-organoren kontratatzailearen profileen argitaratuko da.
- 4) 2018ko otsaileko Obra eta Zerbitzuen Informazio Batzordean egindako proposamena.

Hau erabaki da:

- 1) Udaltzaren kontratazio-mahaiaren osaera hau onestea, kontratazio-organon moduan:
  - I. Mahaiburu titularra: Alkatea, Eduardo Terroba Cabezón. Ordezko mahaiburua: José Antonio Tarragona Elejalde, Obra eta Zerbitzu Batzordeko mahaiburu zinegotzia.
  - II. Idazkaritza eta Kontu-hartzailetzaren arduradun izango den batzordekide titularra: Alfredo S. Sastre de Abajo. Idazkaritza eta Kontu-hartzailetzaren arduradun izango den ordezko batzordekidea: Maria de los Ángeles Bujanda Chasco, Udaltzako karrerako funtzionarioa.
  - III. Kontratazio-mahaiko idazkari titularra: Maria de los Ángeles Bujanda Chasco, Udaltzako karrerako funtzionarioa. Kontratazio-mahaiko ordezko idazkaria: Sara Martínez Gallego, Udaltzako karrerako funtzionarioa.
- 2) Mahaiaren osaera dagokion kontratazio-organoren kontratatzailearen profileen argitaratzea.

Aldeko botoak: 7 (zazpi); Eduardo Terroba Cabezón (EAJ-PNV), Conchi Villanueva Gutiérrez (EAJ-PNV), Idoia Eslava Guillerna (EAJ-PNV), José Antonio Tarragona Elejalde (EAJ-PNV), José

Manuel Villanueva Gutiérrez (EH Bildu Oion), Elizmendi Martínez de San Vicente Apiñániz (EH Bildu Oion) eta Manuel Gamarra López- Brea (PSE-EE-PSOE).

## **6.2. Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratuen inguruko Errekurtsoen Administrazio Organoarekin (KEAO) solaskide izango dena izendatzea.**

Aurrekariak:

- 1) Aplikagarri dira azaroaren 8ko Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legearen 44.-60. artikulua.
- 2) Aplikagarri da abenduaren 23ko 5/2010 Legearen zortzigarren xedapen gehigarria. Lege horrek Euskal Autonomia Erkidegoko 2011 ekitaldiko aurrekontu orokorrak onesten ditu, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratuen inguruko Errekurtsoen Administrazio Organoa (KEAO) sortzea xedatzen du.
- 3) Kontratazioaren errekurtso berezia izapidetzeak hau dakar:
  - a. Errekurtsoa jarrita, KEAOk bide elektronikoen bidez jakinaraziko dio, egunean bertan, kontratazio-organoari, aurkezte-idatziaren kopia bidaliko dio, eta kontratazio-espedientea eskatuko du. Hark hurrengo bi egun baliodunetan bidali beharko du, dagokion txostenarekin batera.
- 4) 2018ko otsaileko Informazio Batzordean egindako proposamena.

Hau erabaki da:

- 1) Solaskide bakarra izendatzea Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratuen inguruko Errekurtsoen Administrazio Organoa eta Oyón-Oiongo Udalaren kontratazio-organoen artean: Alfredo S. Sastre de Abajo, idazkari kontu-hartzaile titularra.  
Aldeko botoak: 7 (zazpi); Eduardo Terroba Cabezón (EAJ-PNV), Conchi Villanueva Gutiérrez (EAJ-PNV), Idoia Eslava Guillerna (EAJ-PNV), José Antonio Tarragona Elejalde (EAJ-PNV), José Manuel Villanueva Gutiérrez (EH Bildu Oion), Elizmendi Martínez de San Vicente Apiñániz (EH Bildu Oion) eta Manuel Gamarra López- Brea (PSE-EE-PSOE).

## **6.3. Hasieran onartzea 2018 ekitaldirako ohiko aurrekontu orokorra.**

Idazkari jaunak kontu-hartzailetzaren txostenaren eta finantza- eta aurrekontu-egonkortasunaren inguruko beste alderdi batzuen berri eman du.

Gamarra jauna: Sentitzen dut, ezin izan bainuen Ogasuneko bilkurara joan. Baiezko botoa emango dugula jakinarazten dut. Uste dut erabakiak bide onean ari direla hartzen, ez dira inbertsioak (igerileku estalia) edo erosketak egiten, Sindikatuen Etxea besteak beste; ikusiko dugu noiz erabil daitekeen...Espero dut Taconerako etxea erosteak onurei onura egingo dien helburu bat izatea. Nekagarriak kentzen ari gara, eta, hala, datorren Udaltzat argiago ikusi ahal izango du. Eta Udaltzate horrek hartu ahal izan ditzala erabakiak, eta ez daitezela egon hainbeste eserleku hutsik talde batean.

Villanueva jauna: Ortu sozialen inguruko zuzenketa partziala kendu dugu; datu batzuk falta zitzaizkigun. Aurrekontua aztertu dugu, eta inbertsioen partida garrantzitsuena Foru Planaren inguruan Aldundiak zer erabakiko dago. Aintzat hartzen ditugu langak ezabatzeko ahaleginak, eta aurreratzen dut aurrekontua babestuko dugula. Dena dela, martxan egon ahala behar bereziren bat ikusten badugu, alkate jaunari adieraziko diogu.

Alkate jn.: Aurrekontuaren memorian eta inbertsio-planean jasotako inbertsio garrantzitsuenen berri eman du.

Inbertsio-plana 724.367,80 eurokoa da guztira. 2017 ekitaldikoaren aldean, nabarmen handitu da (596.737 euro), eta Udalbatzako agintaldi honetan egindako hirugarren inbertsio-plana da; 2015eko ekainaren 13an hasi zen agintaldia, eta 2019ko ekainean bukatuko da.

Azaldutako inbertsio-planak Gastuen Egoerako VI. kapituluan (inbertsio errealak) jasotako jarduketa guztiak ditu.

a) Azpiegiturak berriz jartzeko inbertsioak

1. Taconera kaleko eta Nafarroa etorbideko eraikina eraistea eta orubea egokitzea.
2. Santa Lucía kaleko espaloia zintarriztatzea handitzea.
3. Irribarria kalea urbanizatzea, langak ezabatzea, sareak osatzea.
4. Ramiro de Maeztu eskola publikoko konponketak, Udalaguntza 2017.
5. Mediku-kontsultategian kaltzio-kentzaileak instalatzea.
6. Batzar Nagusiak kaleko gimnasioko teilatua ordezkatzea.
7. Foruen pasealekuko itxitura berritzea eta zinemako markesina konpontzea.
8. Arroyo I pilotalekua eta igerilekuak bereizten dituen itxitura.
9. Arroyo Grande parkeko argiztapena aldatzea.

-

b) Ondare-erosketak

1. Sindikatuen Etxea erostea, 4. epea.
2. Taconera kaleko eta Nafarroa etorbideko eraikinaren kuota erostea.
3. Funts bibliografikoak erostea.
4. Makineria-ibilgailu berezia erostea

Irribarria kalea urbanizatzea, langak ezabatzea, sareak osatzea.

Udalbatzak, 2017ko ekainaren 14ko bilkuran, adostu zen Obra eta Zerbitzuen Foru Planeko 2018-19 programan Laureano Irribarria eta inguruko kaleen urbanizazio-jarduketari lehentasuna emateko eskatzea, langak ezabatzeko eta instalazio-sareak osatzeko, kontratuko 1.962.060,73 euroren exekuzio-aurrekontuarekin. Inbertsioaren aurrekontu osoa 2.049.446,62 eurokoa da.

Partida hori Foru Planak estaliko ez duen kopururako zuzkitu da, obra finantzatzeko. Foru Plana ebazten denean, beharrezkoa izango da aurrekontua obraren finantzazio-planera egokitzea, eta litekeena da beharrezkoa izatea urte askotarako gastuak hitzematea; izan ere, AFaren finantzaketa urte askotakoa izan daiteke, eta obra bi aurrekontu-ekitalditan exekutatu. 265.000 euroko partida bat zuzkitu da.

Taconera kaleko eta Nafarroa etorbideko eraikinaren kuota erostea. Taconera kaleko eta Nafarroa etorbideko eraikina eraistea eta orubea egokitzea

2017ko aurrekontuan aurreikusita zegoen Taconera kaleko eta Nafarroa etorbideko eraikina eraistea. Aurreikusitako zenbateko osoa: 62.344 euro. Eraitsi beharreko eraikina bakarra da, eta bi katastro-lursaili dagokie: Taconera kalea 1 (taberna zegoen lekua), hori da erortzeko zorian zegoela adierazi zena. Eraikinaren jabetzaren % 100 eskuratzea da eraispena egin ahal izateko modua. Jabetza eskuratzeko eskaintza 22.000 eurokoa da.

Santa Lucía kaleko espaloia zintarriztatzea handitzea.

Partida 38.000 euroekin zuzkitu da. Ez da baztertzen AFaren Obra Txikiak Egiteko 2018ko programan laguntza eskatzea. Jarduketa honek langa bat ezabatzea ere badakar; izan ere, Santa Lucía kalearen mendebaldeko alboan, lehen zatian, bi metro zabaleko espalo bat egingo da.

Ramiro de Maeztu eskola publikoko konponketak, Udalguntza 2017. Honako zeregin hauek egitea proposatzen da.

1. Osasun-solairuaren barruko konponketak: 86.624,38 euro.
2. Konponketak barruko patioetan: 24.838,28 euro.
3. Konponketak idatzitako teilatuan: 24.478,30 euro.
4. Konponketak aldageletan: 8.315,42 euro.
5. Konponketak jangelan: 33.549,67 euro.
6. Konponketak jolastokian: 9.503,34 euro.

Partida 187.309,29 euroekin zuzkitu da.

Eta, hala, Udalak eskola publikoa mantentzeko 102.000 euro jarri ditu.

Landa-bideak – nekazaritza-bidegintza

Aurrekontuak 50.000 euroko partida bat du atal honetarako. Zentzu hertsian ulertuta, ez da inbertsio-partida bat. Talde honek landa-bideak mantentzeko konpromisoa hartzen du, gutxienez landako OHZtik jasotakotik aurrekontuetan jarritako kopuruan. Ez dago aurreikusita AFAk edo EJK diru-laguntzak ematea lan horiek finantzatzeko.

#### Aurrekariak

1. 2018 ekitaldiko Ohiko Aurrekontu Orokorraren proiektua 2018ko urtarrilaren 25ean bidali zitzaizen talde politikoei.
2. Horretarako gaitutako epean, zuzenketa bat aurkeztu du EH Bildu Oion taldeak.
3. 2018ko otsailaren 14ko Kontuen Batzorde bereziaren bilkuran, aurrekontua behin-behinean onestearen aldeko txostena bidali zen.
4. Aplikagarriak dira 3/2004 Arauko (otsailaren 9koa, Arabako lurralde historikoko tokiko erakundeen aurrekontuei buruzkoa) 14tik 18ra bitarteko artikulua.
5. Era berean, aplikagarria da 7/85 Legearen 47.1 artikulua: aurrekontuaren hasierako onarpenak ez du gehiago osorik behar.
6. Kontu-hartzailetzaren txostena jasota dago.

Hau erabaki da

1. Hasieran onartzea 2018 ekitaldirako ohiko aurrekontu orokorra.
2. Onestea Aurrekontua Gauzatzeko Udala Araua.
3. Lanpostuen Zerrenda onestea.
4. Espedientea jendaurrean jartzea otsailaren 9ko 3/2004 Arauak (Arabako lurralde historikoko tokiko erakundeen aurrekontuei buruzkoa) adierazitako epeetan.
5. Behin-behinean onesteko erabaki hau behin betiko bihurtzea ez bada alegaziorik aurkezten. Alegazioak badaude, hilabeteko epean ebaztea.
6. Espedientea behin betiko argitaratzea eta Arabako Foru Aldundiari haren berri ematea.

Aldeko botoak: 7 (zazpi); Eduardo Terroba Cabezón (EAJ-PNV), Conchi Villanueva Gutiérrez (EAJ-PNV), Idoia Eslava Guillerna (EAJ-PNV), José Antonio Tarragona Elejalde (EAJ-PNV), José Manuel Villanueva Gutiérrez (EH Bildu Oion), Elizmendi Martínez de San Vicente Apiñániz (EH Bildu Oion) eta Manuel Gamarra López- Brea (PSE-EE-PSOE).

Martínez de San Vicente Apiñániz (EH Bildu Oion) andreak alde egin du bilkuratik

Eguneko gaien zerrendako gaiak aztertu ondoren, eta galde-eskeen txandara pasatu aurretik, Villanueva Gutiérrez jaunak ohartarazi du ez dela sartu AHTren trazaduraren aurkako adierazpena, eta premiazko izapide bidez honako gai hauek sartzea eskatu du:

Adierazpen instituzionala etorkizuneko AHTren Miranda de Ebro – Logroño trazaduraren aukerak, Arabako lurraldea zeharkatzen dutenak, arbuiatzeko  
Bozkatu egin da premiazko izapide bidez adierazpen instituzionala sartzea (etorkizuneko AHTaren Miranda de Ebro – Logroño trazaduraren aukerak, Arabako lurraldea zeharkatzen dutenak, arbuiatzekoa).

Aldeko botoak: 6 (sei): Eduardo Terroba Cabezón (EAJ-PNV), Conchi Villanueva Gutiérrez (EAJ-PNV), Idoia Eslava Guillerna (EAJ-PNV), José Antonio Tarragona Elejalde (EAJ-PNV), José Manuel Villanueva Gutiérrez (EH Bildu Oion) eta Manuel Gamarra López- Brea (PSE-EE-PSOE).

Hau erabaki da:

1) Premiazko izapidez gai hau sartzea:

Adierazpen instituzionala, etorkizuneko AHTaren Miranda de Ebro – Logroño trazaduraren aukerak, Arabako lurraldea zeharkatzen dutenak, arbuiatzeko

Gai horiek eguneko aztergaien zerrendan sartu dira premiazko izapide bidez, eta, jarraian, haien erabakiaren eta bozketaren berri eman da.

#### **7. Adierazpen instituzionala, etorkizuneko AHTaren Miranda de Ebro – Logroño trazaduraren aukerak, Arabako lurraldea zeharkatzen dutenak, arbuiatzeko**

Behean sinatzen duten udal-taldeek honako adierazpen instituzional hau aurkezten dute, arbuiatzeko Arabar Errioxa, Zanbrana eta Conchas de Haroko lurraldeari eragingo dion AHTren proiektu bat egitea Miranda de Ebro-Logroño lotura egiteko:

1. Oyón-Oiongo Udalak, Arabar Errioxako Kuadrillarekin, udalekin, Eusko Jaurlaritzarekin, eta Arabar Errioxako eta Errioxa Garaiko eragile sozial eta ekonomikoekin bat eginez, arbuiatu egiten du Arabar Errioxa, Zanbrana eta Conchas de Haroko lurraldeari eragingo dion AHTren proiektu bat egitea Miranda de Ebro-Logroño lotura egiteko.

2. Oyón-Oiongo Udalak horren berri emango die Sustapen Ministerioari, Eusko Jaurlaritzari, Batzar Nagusiei eta Arabar Errioxako Kuadrillari.

Terroba Cabezón (EAJ-PNV), José Manuel Villanueva Gutiérrez (EH Bildu Oion) eta Manuel Gamarra López- Brea (PSE-EE-PSOE) jaunek sinatu dute.

#### **Azken puntua) Galderak eta eskeak**

Jorrazteko gai gehiagorik ez dagoenez, udalburu jaunak amaitutzat eman du bilkura 21:55ean (bilkura 20:00etan hasi zen), eta nik, idazkariak, guztiaren fede ematen dut.

Oyón-Oionen, 2018ko martxoaren 7an.

Udaleko idazkaria:

Presidenteak OE: